

2021EKO EKAINAREN 22AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO MAIATZAREN 11KO AKTA).
- 2.- IZFE SA - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA ZEGAMA KO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA
3. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 4.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO MAIATZAREN 11KO AKTA).

Alkateak, 2021eko maiatzaren 11ko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) adierazten du, galde erantzunen puntuko lehen atalean, "tentsio altuko plataformaren" idatzirik jaso al den aipatzen dela eta ez dela plataforma, baizik eta "Red Eléctrica Española udalarekin hartu emanik" eduki zuen adierazi zuela. Horrenbestez, zuzenketa hori jasotzea adosten da.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta, aldaketa horrekin.

2.- IZFE SA - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Espedientea ikusirik.

Informatik Zerbitzuen Foru Elkartetik (IZFE S.A.), Zegamako Udalarekin sinatzea proposatzen den lankidetzaren hitzarmen berria jakinarazten da, honen onarpena bideratzeko.

Hitzarmena ikusirik eta bertan jasotako adierazpen, klausula eta eranskinak ikusirik.

Horrela, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bere lurralde Historikoetako Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.5. artikulua Lurralde Historikoei esleitzen die toki-erakundeentzako laguntza eta aholkularitza teknikoaren arloko eskumen eskusiboa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1. artikulua Aldundiaren berezko eskumenen artean ezartzen du, nolahi ere, udal-zerbitzuen arteko koordinazioa, udal-eskumeneko zerbitzuak probintziako lurralde osoan egoki egitea bermatzeko; udalerriei laguntza eta lankidetzaren juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa ematea; eta, bereziki, Administrazio elektronikoari lotutako zerbitzuak eskaintzea 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Baldintza hori betetzen dute gaur egun Gipuzkoako 88 udalerrietatik 81k.

Bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (ETEL, 17.1.30) artikuluan xedatzen duenez, udalerriek beren eskumenak baliatu ahal izango dituzte honako arlo hauetan: teknologia berrietarako sarbidea antolatzea eta kudeatzea, administrazio elektronikoa, prozedurak arrazionalizatzea eta sinplifikatzea, eta, bereziki, udalerrian herritarrek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera efiziente eta jasangarria parte har dezaten sustatzea.

Aurreko I. atalean aipatutako eskumenak baliatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika-zerbitzuak eskaini eta ematen dizkie lurralde historikoko udalei nahiz bestelako toki-erakundeei, Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (hemendik Aurrera IZFE SA) foru sozietate publikoaren bitartez eskaini eta eman ere, aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua izaki.

“Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA” Merkataritzako Entitatearen Estatutu Sozialen 3. artikulua honek xede sozialtzat Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzeko eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betetzeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du.

Zuzenbidearen ikuspegitik, laguntza hori aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru hitzarmena sinatzen dute eta hitzarmen hori oinarri hartuta sinatzen dira gero udal edo tokierakunde bakoitzaren eta IZFE SAREN arteko berariazko hitzarmenak.

2002. urtean izenpetu zen lankidetzarako esparru hitzarmen hori duela gutxi berriro egin da.

Lankidetzarako esparru-hitzarmen horren arabera, bere lurraldeko udalek nahiz bestelako toki-erakundeek arlo honetan behar duten laguntza teknikoa bere foru sozietate publikoaren bitartez emateko konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, hari aldeaz aurretik mandatua emanda.

Berariazko hitzarmenetan, berriz, delako tokierakundeari dagokionez garatu beharreko jarduketak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak zehazten dira, betiere, esparruhitzarmenak modu orokorrean aurreikusituen estipulazioei jarraikiz.

Lankidetzaz hori lurralde historikoko udalei beren helburuak lortzen laguntzeko aipaturiko eskumenean oinarritzen da, eta interes publiko ukazina du, ez bakarrik udal administrazioaren esparruan informazioaren eta komunikazioen teknologien berezko tresnen erabilera garatzen delako, eta, horrela, udal zerbitzu publikoen eraginkortasuna handitzen delako, baita tresna horiek udalerrien artean eta foru sistema informatikoekin erabiltzeko aukera ematen duelako ere; horrela, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazten da, eta, aldi berean, foru kudeaketa hobetzen da Foru Aldundiaren eta udalen esparruen eskumenak elkarri lotuta dauden arloetan.

Illo horretatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluari jarraikiz, administrazio publikoek, beren eskumenean barruan, hitzarmenak sinatu ahal dituzte Zuzenbide Pribatuko entitateekin, xede komun bat lortze aldera, betiere, modu horretan kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen bada, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten bada eta erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezela laguntzen bada, besteak beste.

Gainera, hitzarmen markoa hori eta ondoriozko berariazko hitzarmenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira, bere 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lankidetzaz-hitzarmen honek IZFE SA sozietateak Zegama(e)ko Udalari egingo dizkion informatikazerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira.

IZFE SA sozietatearen betebeharrak, oro har, IZFE SA sozietateak konpromisoa hartzen du, egindako informatika-zerbitzuei dagokienez, Zegama(e)ko Udalak eskatzen dizkion informatika, mantentze eta kudeaketako arazoetan aholkularitza, sostengua eta laguntza emateko.

Halaber, zerbitzu informatikoen ezarpena bermatuko du Zegama Udaleko antolamenduaren egiturako maila guztietan, honen ezaugarri eta behar zehazten arabera, horretarako erakundeko langileei prestakuntza egokia eskaini beharko dielarik.

Zegama(e)ko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren informatikazerbitzuak eman eta jasotzearen ondoriozko diru-ekarpenak hitzarmen markoaren II. Eranskinean zehazten den gastuak banatzeko sistemaren eta hitzarmen marko horretan azaltzen den jarraipen batzorde betearazleak proposatutako banaketa irizpideen arabera egiteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalekin informatikako lankidetzazko proiektuaren kostuaren %100eko ekarpena mantenduz.

Baita ere, ezarrita dauden edo ezarri nahi diren informatika zerbitzuak eta produktuak garatu eta hobetzerazuzendutako jardunetan (informatika egiturak definitzea, irizpideak eta estandarrak finkatzea, aplikazio berriak definitu, garatu eta ezartzea...) eraginkortasunez laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

Horren arabera, 2021eko zenbatekoa 12.252,79 euro gehi 2.573,09 euro (%21 BEZ) izango dira, guztira 14.825,88 euro.

Horrenbestez, Alkateak proposatzen du adierazitako hitzarmen onartzea.

Hitzarmenaren xedea (adierazpenak, klausulak eta eranskinak) eta helburuak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udaltzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko hiru zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, honako hau erabakitzen du:

Lehenengoa. Izferen eta Zegamako Udalaren arteko Hitzarmena, zerbitzu informatikoen arlokoa, onartzea.

Bigarrena. Alkate jaunari hitzarmena sinatzeko, eta bidenabar, hitzarmena sinatzeko legez beharrezkoak diren tramite guztiak egiteko eskumena ematea.

Hirugarrena. Akordio hau Izferi jakinaraztea.

Laugarrena. Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko Iragarki Taulan eta Udalaren Gardentasun Atarian argitaratzea.

3. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 01/0621 erabakia, ekainaren 1 ekoa, udaleku irekietako hezitzaile hautatuen zerrenda onartuz.
- 02/0621 erabakia, ekainaren 2koa, "Urbizu Zegama S.L. hegazti-ustiakuntzan ontziratze nabea erreformatzeko" lana egiteagatik eta aurkeztutako lanen amaierako egite-urrekontuaren arabera, egindako 1.457,47 euroko behin-betiko kitapena onartuz.
- 03/0621 erabakia, ekainaren 12koa, 12 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina); guztira 46.557,66 euro onartuz.
- 04/0621 erabakia, ekainaren 15 ekoa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 05/0621 erabakia, ekainaren 16koa, Labe-Lan S.L. enpresan ganbaratxo bat egiteko lan baimena emanez.

4.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Zegama-Aizkorri maratoiko promozio bideoa erdara hutsean dagoela adierazten du, Youtuben ikusitakoaren arabera. Salomon-ek egindako bideoa izango dela adierazten da. Nolanahi ere, Alkateak, antolakuntzarekin komentatuko duela adierazten du, Udalak, lan hauetan ezertan ez dela sartu azalduz ere.
- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), euskara batzordean aztertutako gaiak azalduz, azkeneko euskararen erabilerari buruzko kale neurketa 2008an egin zela adierazten du, eta zentzu horretan, berri bat egiteko komenigarritasuna aipatu zela dio.

Bestalde, jaio berrien liburu gutxi gelditzen direla esaten du. CDak oparitzea agian beharrezkoa ez dela aipatuz, Donostiako Udalak, gurasoei euskararen inguruko aholku idatzi bat bidaltzen duela adierazten du, eta hau eredu bezala hartu daitekeela esaten du.

Parketarrak programari buruz ere hitz egin zela adierazten du. Udazken inguruan burutzen den ekintza bat izango litzateke, eta lau astetan zehar 3-6 urte (gurasoekin) eta 6-9 (gurasorik gabe) urte bitarteko haurrekin ordubetez jolasak burutuko lirateke. Interesgarria dela azaltzen da, eta aurrekontua 1.400,00 eurokoa dela esaten da. Ormaiztegin eta Olaberrian egiten dela adierazten da, eta positiboki irizten dute bilkurakideak hau bideratzea, iraila edo urrian.

Azkenik, Mintzalaguna programari buruz eztabaidatu zela azaltzen du. Martxan jarriko dela azaltzen da. 6 edo 7 lagunek izena eman dutela azaltzen du, nolanahi ere, adierazten du gutxieneko euskera maila bat edukitzea baldintza bezala ez dela jarri eta kasu batzuetan, euskera maila oso txikia dela.

- Aritz Agirre Garikano zinegotziak (EH Bildu), udako igerilekuen sarreren funtzionamendua nola izango den galdetzen du (herrian erroldatuta ez dagoen pertsona batek galdetu diola azaltzen du). Alkateak adierazten du, aurreko urtean bezala egingo dela, eta egunero 10 sarrera erreserbatuko direla abonoa ez dutenentzat. Aforoa dela eta murriztu egin behar dira sarrerak eta erroldatutako pertsonen lehentasuna emango litzateke. Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) nekazaturismora joaten direnak 10 horietan sartzen diren galdetzen du. Alkateak baietz erantzuten du. Abonoa herrian erroldatuek bakarrik atera ahal izango dute.

Aztertze gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogeita hamabi minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021ekok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2021.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO